

IDEIA ETA AURKEZPENA

Canvas ereduarekin hasi baino lehen gure enpresako eta gure taldeko aurkezpen bat egin dugu.

Gure taldean 5 pertsona gara; Leticia Sebastián, Jennifer Gutierrez, Ainhoa Zamakona, Ane Requejo eta Maider Bonet.

Proiektu hau hobeto aurrera eramateko guk sortu genuen taldea, gure artean oso ondo moldatzen garelako eta hainbat ideia izan genituelako.

Haur Hezkuntza ikasten ari garenez, argi izan genuen gure enpresa umeei zuzenduta izango zela eta umeei dituzten beharizanei aurre egiteko prest egon ginen.

Bi ideia bururatu zitzaizkigun; lehenengoa Haur Eskola bat sortzea aniztasun funtzionala duten umeentzat, bigarren ideia, ospitaletan dauden umeei heziketa berezi bat eskaintzea izan zen.

Hainbat "eztabaida" izan ostean, bigarren ideia bat izan genuen, erabaki genuena gure enpresa sortzeko.

Ospitaletan dauden umeei heziketa berezi bat eskaintzea erabaki genuen hainbat arrazoiengandik; haien artean tamalez gaur egun, gero eta ume gehiago daude gaixorik ospitaletan, ospitale bat ez da leku egoki eta alai bat umeentzat horregatik gure enpresari esker bertan dauden umeak haien egunerokotasunetik aterako ditugu, ekintza desberdinak proposatuz.

Horretaz gain, heziketa berezi bat eskainiko diegu baina ez gara zentratuko ikastolan ematen diren ikasgaietan, baloreetan baizik, hainbat balore transmititzea izango zen gure funtsezko helburua, etorkizunean lagungarriak izango direla uste dugulako.